

Gure enpresarentzat funtsezkotzat jotzen ditugun elementu asko daude, gure balio-proposamena garatzen, bezero gehiagorengana iristen eta diru-sarrerak sortzen laguntzen digutenak. Elementu horiek honela banatzen dira: Baliabide fisikoak, Baliabide intelektualak, Giza baliabideak eta Finantza baliabideak.

Baliabide fisikoak hasiko ditugu. Hauek dira gure enpresaren propietate ukigarriak. Fabrika bat daukagu eskumuturrekoak muntatzeko eta hornitzaileak hartzeko. Muntaia baino fabrikazio handiagorik egin behar ez dugunez, fabrika bakarrarekin eta ez oso handiarekin, balio digu. Gainera, fabrikaren barruan hainbat mahai ditugu produktua lantzeko, eta muntatzeko tresnak ere bai. Bestalde, milaka eskumuturrekoentzako biltegia dugu, eta bertan gordetzen ditugu eskumuturrekoak. Iraungitze-datarik ez dutenez, nahi ditugun guztiak gorde ditzakegu, nahiz eta beti kopuru finko batzuetan egon. Biltegiaren barruan eskumuturrekoak gordetzeko palak ditugu, ez dugu besterik behar. Azkenik, bulego batzuk ditugu eskumuturrekoak hobetzeko hainbat gai eztabaidatzeko, eta ordenagailuak eta informatikako ekipoa ditugu.

Baliabide intelektualetan "Savely" markaren patentea dugu. Patentatu egin dugu, izen horren gaineko eskubide guztiak izateko eta gu kopiatzeko ere erabili ezin izateko.

Giza baliabideekin jarraituz, horiek oso garrantzitsuak dira guretzat. Oso talde profesionala daukagu eskumuturreko guztiak primeran atera daitezen. Lehenik gure fabrikatzaileak ditugu, batzuk eskumuturrekoak muntatzeaz eta beste batzuk biltegira eramateaz arduratzen direnak. Horrez gain, biltegia kontrolatzen duen eta eskumuturreko gehiago fabrikatzeko edo ez fabrikatzeko aginduak ematen dituen beste ekipo bat dugu. Gure "Community managerra" dugu sare sozial guztietara eramaten gaituena, bezero gehiagorengana iristeko eta gehiago saltzeko. Eta bestetik, zuzendaritza taldea dago, non gu 3 gauden. Enpresaren norabidea markatzen duten erabaki garrantzitsuenak hartzen ditugu bulegoan.

Azkenik, Finantza baliabideak. Hau da gure eskumuturrekoetatik eta ditugun aktibo guztietatik sortzen ari garen diru guztia. Adibidez, lursail handi bat dugu, gure bulegoa, fabrika eta biltegia dauzkaguna.